

NIGHT&CO  
Let's party with us

# NIGHT&CO

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren funtsezko jarduerarik nabarmenena berritasuna da. Gure aplikazioak, gainera, erosotasuna eskaintzen du, eta aplikazio bakar batean hainbat gabezia konpontzen ditu. Adibidez:



### SARRERAK EROSI:

Diskoteka baten sarrerak eskuratzeko orduan, harreman publiko batekin geratu behar duzu, edota diskotekan bertan eros dezakezu zure sarrera (baina horrela egitekotan, garestiagoa izateaz gain, sarrerarik gabe gera zaitezke). Guk, NIGHT&CO-rekin proposatzen duguna, aplikazioarekin zuzenki erostea da, inorekin geratu gabe, eta prezio normalean; gero, han zure mugikorrarekin erakutsi behar izango duzu sarrera.

### NON EGONGO DA GIRO ONA?

Gure aplikazioan, bakoitzak nora joango den adierazi ahal duenez, horrela giro onena non egongo den jakin daiteke.




NIGHT&CO

Let's party with us

### KONTAKTUAK BILATU:

Diskoteka baten barruan, oso erraza da galtzea, jende asko dago, eta bilatzen duzun pertsona ez duzu inondiko ikusten. Arazo hau konpontzeko, GPSa konektatuta izatekotan, zure kontaktuaren izena bilatu, eta non dagoen agertuko zaizu.



### EDARIAREN ESKAERA:

Diskoteka batzuetan, edatekoa eskatzeko denbora asko egon behar zara barra aurrean zerbitzariak zuri jaramon egin arte. Horregatik, gure aplikazioak mugikorretik edariak eskatzea ahalbidetzen du.

### DISKOTEKA BAKOITZAREN EZAUGARRIAK:

Diskoteka eta pub askoren artean erabakitzeko nahitaezkoak izan nahi dugu, horretarako, hauen ezaugarriak eskuragarri izango ditugu gure aplikazioan. Baliagarri izango ditugun datuen artean ezinduentzako sarrera, musika mota, sartzeko baimendutako adina, etab.